


EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

2026

Premien Txostena




eman ta zabal zazu

Premien Txostena,
Euskal Herriko Unibertsitatea.

Atalak:

1. **Sarrera**
2. **Eraldaketa digitala**
3. **Pertsonen zaintza**
4. **Azpiegiturak**
5. **Unibertsitate-autonomia**
6. **Ikerketa eta transferentzia**
7. **Nazioartekotzea**
8. **Bestelako beharrak**



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

01.

Sarrera


192.
146.
465 €

LABURPENA:

BEHARREZKO FINATZANTZAZIOA: 192.146.465 €

**EHUN GAUR EGUN DAUDEN BALIABIDEEZ GAIN, FINANTZIAZIO
OSAGARRIAREN BEHARRA:**

4.688.868 €	ERALDAKETA DIGITALA
74.356.760 €	PERTSONEN ZAINZA
42.329.930 €	AZPIEGITURAK
59.718.779 €	UNIBERTSITATE AUTONOMIA
5.516.531 €	IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA
383.371 €	NAZIOARTEKOTZEA
5.152.226 €	OINARRIZKO FUNTZIONAMENDURA BEHARRA
192.146.465 €	OROTARA



Sarrera

192.146.465 €

LABURPEN EXEKUTIBOA

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) egoera kritikoan dago, azpifinantzaketa jarraitu baten eraginez. Horren ondorioz, funtsezko zerbitzu asko kolapsatzeko zorian daude. Ez gara ari pixkanaka egin beharreko hobekuntzez, ezta proiektu desiragarriez ere, unibertsitatearen segurtasuna, jarraitutasun operatiboa eta xede publikoa bermatzeko gutxieneko baldintzez ari gara: hau da, kalitatezko irakaskuntza, ikerketa bikaina, transferentzia eraginkorra eta unibertsitateak gizarteari eman behar dion zerbitzuaz. Zerbitzu publikoaz.

Dokumentu honek egungo aurrekontu-ahalmenak estaltzen ez dituen premia kuantifikatuen katalogazioa jasotzen du. Ezinbestekoa da horiek aintzat hartzea unibertsitatearen egiturazko funtzionamendua eta proiektu akademikoaren garapena bermatzeko. Premia horiek ez ditu barnebiltzen egungo finantzazioak, ez eta egungo aurrekontu-gaitasunak ere. Ezinbestekoa da horiek aintzat hartzea unibertsitatearen egiturazko funtzionamendua eta proiektu akademikoaren garapena bermatzeko. Horixe da, hain zuzen ere, **“Denon Artean” proiektua — unibertsitate-komunitatearen gehiengo zabalak babestua —: proiektu akademiko eta humano partekatua, eta 2026an gauzatzeko**, hemen zehazten diren zenbatekoak behar ditu. Zenbateko horiek zorrotasunez argudiatuta daude, eta diagnostiko sakon batean oinarritzen dira. Gaur egun planteatzen diren **egiturazko arazo askori iraganean erantzun ez bazaie**, ez da izan aurreko errektoretza-taldeek borondate faltagatik, baizik eta jarduera horiei **bermeekin eta era jarraituan ekiteko behar adinako finantzaketa faltagatik**.

Euskal unibertsitate publikoaren finantzaketa nagusiki bi multzo handitan egituratzen da: **finantzaketa arrunta** eta **programa-kontratuak**. **Finantzaketa arrunta 317,4 milioi eurokoa** da 2025ean (315,6 M €-ko ekarpen arrunta eta 1,8 M €-ko kapital-gastua), eta unibertsitatearen **funtzionamenduaren oinarritzko beharrak** estali beharko lituzke: irakaskuntza, ikerketa, azpiegituren mantentze-lanak, digitalizazioa, zerbitzuak eta langileak. Zenbatekoa **ez da nahikoa**, ordea, EHUn neurriko unibertsitate-sistemari **egonkortasunez eta autonomiaz eusteko**. Finantzaketa horri programa-kontratuak gehitu behar zaizkio, **41 milioi euroz hornituak**. Partida horiek helburu jakin batzuei lotuta daude eta zurrinak dira, eta unibertsitatea Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoekin lerrokatzeko xedea dute, batez ere berrikuntzaren, ikerketa aplikatuaren eta industriaren arloetan. Gainera, Euskal Unibertsitate Sistemaren **Urte Anitzeko Inbertsio Planetik 25 milioi euro** jasotzen ditu unibertsitateak azpiegitura-proiektuetarako eta **18 milioi euro** langileen **ordainsari osagarrietarako**, guztiak helburuei lotuak. Oro har, partida horiek **402 milioi eurokoak** dira, baina haien zati handi bat **helburu espezifikoetarako baldintzatua edo mugatua** dago, eta horrek nabarmen murrizten du unibertsitatearen benetako gaitasuna bere egiturazko beharrei erantzuteko eta epe ertain eta luzerako garapena autonomiaz planifikatzeko.

Finantzaketa hori osatzeko badaude **beste diru-sarrera propio batzuk** ere, zenbait jardueretatik etorriak. Haien artean daude **unibertsitateko tasetatik datozenak**. Hala ere, aurrekontuaren zati mugatu bat besterik ez dira, eta **ez dira eguneratu azken hamarkadan**, era horretan EAEko goi-mailako **irakaskuntzaren irisgarritasuna, ekitatea eta bokazio publikoa** bermatzeko. **Finantzaketa arrunta urria** izateak —zeinak, berez, unibertsitatearen eguneroko funtzionamendua bermatu beharko bailuke— eraman du **EHU gaur egungo egiturazko desorekara eta hauskortasun finantzariora**.

Ezin da eztabaidatu EHU azpifinantzatuta dagoela. Egitate objektiboa da, 2022az geroztik urtez urte egiaztatua, orduan hasi baitzen agerian geratzen Eusko Jaurlaritzaren ekarpenaren eta unibertsitateak berak onartutako aurrekontu-beharren arteko egiturazko desoreka. Ekitaldi bakoitzean, urte hasierarako jakina da 15-20 milioi euro inguruko gabezia izango dela eta era esplizituan toleratzen da hutsune hori. Kopuru hori plangintza ekonomikoan aitortzen du EHUK, eta, geroago, urte amaieran, injektatu egiten da, Eusko Jaurlaritzaren “ezohiko ekarpen” gisa. Testuinguru horretan, aurtengo finantzaketa % 6,9ko igoera (24,6 M€) ez da benetako indartze bat; aurreko jardueran egindako ekarpenari dagokion kopurua txertatu besterik ez du egiten, egoera orobat bere horretan utzita. Edozein kasutan, unibertsitatearen egiturazko eskasia-egoerak bere horretan jarraitzen du, planifikatzeko gaitasunik gabe eta oinarritzko beharrei aurre egiteko zailtasun handiekin.

Azken hamarkadan, EHUn **tamaina nabarmen handitu** da, bere jarduera alor denetan hazi den heinean. **Gradu eta masterretako matrikulek gora** egin dute eta EAEko goi hezkuntzako erreferente nagusi gisa kontsolidatu da EHU. Mikrokredentzial berriak abiarazi ditu, eta defendatutako tesien kopurua ere hazi egin da, komunitate zientifiko aktiboaren isla. Unibertsitateak biderkatu egin ditu bere **ikerketa proiektuak**, bereziki **europarrak eta estatukoak**, eta sustapen berezia egin du **ezagutzaren transferentzian**. Unibertsitate-enpresa-gizarte gelen eta unibertsitate-katedren kopurua handitu egin da, eta 2025ean hogeita eskaera berri baino gehiago jaso ditugu. Horrek guztiak erakusten du EHU garapenean dagoen unibertsitate bizi eta berritzailea dela, egiturazko finantzazio falta nabaria izanda ere.

Edonola ere, aipatutako hazkundeak ez du izan pareko igoerarik TEKAZEL pertsonal aldetik, eta horrek egoera kritiko batean kokatu gaitu: EHUn **TEKAZEL/IRI ratioa 1/3koa da**; aldiz, CRUEk (Espainiako Unibertsitateetako errektoreen Konferentzia) gomendatzen duena 1/1. Egiturazko desoreka horrek Europako zerrendaren atzealdean kokatzen gaitu TEKAZEL/IRI ratioari dagokionez, Grezia baino ez dugu atzetik—, eta agerian uzten du arazoaren larritasuna eta pre-miazkoa dela euskal unibertsitate publikoari giza baliabideak eta baliabide materialak ematea, haren dimentsioak, hazkundeak eta gizarte-konpromisoak eskatzen baitituzte.

Adierazleak zalantzarik gabeak dira. Azpiegituri dagokienez, 2025ean 845.854 m²-ren mantentze-aurrekontua 1,8 M €-koa izan da, horrek esan nahi du 2 € eskaintzen zaizkiola metro karratu bakoitza mantentzeko; irizpide teknikoa baino askoz txikiagoa (30 €/m²). Emaita: itoginak, klimatizazio eskasa, egitura narriatuak, eraikin birrinduak eta ekipamendu itxiak. Azpiegiturak mantentzeko esleipen egokia izango bagenu, ez genuke plan berezirik beharko erortzen ari diren eraikinak erreskatatzeko: **unibertsitatea hondatze-maila horretara ez iristea behar dugu**. Ez gara ari finantzaketa finalistaren mende dauden salbuespenezko inbertsioez — programa-kontratuak edo Azpiegiturak Hobetzeko Urte Anitzeko Plan Berezia (aurrerantzean PPEMI), esaterako —, baizik eta **urteetan aintzat hartu ez den egiturazko beharraz**.

PPEMI, zalantzarik gabe, **proiektu estrategikoetarako eraikin eta azpiegitura berriak garatzeko** esparru desiragarria da, baina unibertsitateak **autonomia eta finantza-nahikotasuna izan behar ditu** proiektu horiei modu autonomoan ekin ahal izateko, **finantzaketa-esparru salbuespenezkoak, fi-nalistak eta denboran mugatuak** iristearen mende egon gabe. Horregatik, **2026rako beharren katalogazioan jasotako proiektu berriei dagokien zenbatekoa**, kasu gehienetan, **proiektuen idazketa- eta diseinu-faseei dagokie**, ezinbestekoak baitira proiektu horiek bermeekin gauzatu ahal izateko dagokion finantzaketa-esparrua aktibatzen denean.

Gauza bera gertatzen da digitalizazioarekin: gaur egun, berrikuntza teknologikoaren beharrak ez dira iraupen jakineko planen bidez konpontzen. Digitalizazioa eta digitalizazioari eusten dio-ten zerbitzuak **egiturazko beste premia bat** dira. Prozesuek, sistemek eta aplikazioek etengabe-ko berrikuntza behar dute, eta unibertsitateak behar diren **gaitasuna eta moldakortasuna** izan behar ditu horietara etengabe egokitzeko. Gaur egungo zaharkitze teknologikoak, ingurune digital aurreratuetan integratzeko **gai ez diren GAUR bezalako plataforma kritikoekin, eragozten du barne-kudeaketa modernizatzea eta baita araudietara eta Europako esparrura egokitzea ere**. Gabezia horrek mugatu egiten du EHUK titulazio bateratuak (**joint degrees**) eskaintzeko, beste unibertsitate batzuekin prozedura elkarrengileak garatzeko eta Europar Batasunak eska-tutako estandar digitalak betetzeko duen gaitasuna.

Pertsonengan, soladaten maila apalak eta promozioan gertatzen diren blokeoek talentuaren erakarpena, egonkortzea eta erreleboa erabat baldintzatzen dute. E-maila: ordezkapen-pol-tsak eta itxaron-zerrenda luzeekin. **Irakasle eta ikertzaileen (IRI) soldatak euskal administrazio publikoaren estandarren oso azpitik daude**, eta soldata-arrakala nabarmena sortzen dute, ta-lentu akademikoa eskuratzea eta mantentzea zailtzen duena. Nolanahi ere, finantziazio faltak **berdin eragiten die bai ibilbidearen hasieran daudenei, bai beren karreraren etapa aurrera-tuetan daudenei**, eta hori garbi adierazten du **promozio-prozesuetan dagoen tapoi bidega-beak**, merezimendu akademikoa eta profesionala aitortzea eta sendotzea eragozten duena.

Ikerketan, nazioartekotzean eta komunikazioan, jardueraren hazkunde jarraitua eta bizkorra gertatu da —proiektu gehiagorekin, administrazio-komplexutasun handiagoarekin eta arau-es-kakizun eta eskakizun digital berrieekin— **ez duena berarekin ekarri ezinbestekoa zen egitura-ren indartzea**. Arlo horiei eusten dieten zuzendaritzek eta zerbitzuek beren gaitasunaren muga lan egiten dute, eta horrek ekarri du **gainkarga kronikoa, kudeaketaren atzerapenak eta** inguruko beste unibertsitate batzuekiko **lehiakortasuna eta gaitasun operatiboa galtzea**.

Horri gehitu behar zaio **lan-baldintza materialen eta irakaskuntza-jardueraren okertze pro-gresiboa**. Ordenagailuak birjartzeko edo erosteko itxaron-zerrendak daude, ikerketa-, irakas-kuntza- eta kudeaketa-lanetarako oinarritzko eta ezinbesteko tresna. Era berean, ikasgela asko-ren **baldintzak oso desagokiak** dira, klimatizazio-arazoak, entxufe eta karga-puntu nahikorik eza, eta batzuetan eskolak bertan behera uztea eragiten duten egitura zaharkituak, oinarritzko ekipamenduaren funtzionamendua bermatzeko gai diren **teknikari espezializaturik ez** dagoe-lako. Gabezia horiek ez dira gertakari puntualak, egiturazko arazo baten ageriko adierazpena baizik: **bere garapenari eusteko beharrezko baliabiderik gabe hazten den unibertsitatea**.

Premien katalogazio horrek eraldaketarako plan indartsu bat eskatzen du, **Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoarekin (aurrerantzean USLO)** eta Europako konpromisoekin bat datorrena. USLOren helburu estrategikoa BPGren % 1eko finantzaketa publikoa lortzea da, eta horrek, **Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, urtean 980 milioi euro inguru ekarriko lituzke**. Hala ere, adierazle konparatiboetara joz gero, BPGaren arabera estatuko atzealdean kokatzen da, **atzealdetik laugarren postuan unibertsitateko inbertsioari dagokionez**, eta are atzerago Euro-pako unibertsitateekiko, goi-mailako hezkuntzako gastuaren **batez bestekoa BPGren % 1,4ra** hurbiltzen baita, **Kooperazio eta Garapen Ekonomikoaren Erakundearen (OCDE) eta UNES-COren datuen arabera**

Testuinguru horretan, **ikasle kopuruaren arabera inbertsioaren adierazlea ez da egokiena EHUren errealitatea islatzeko**; izan ere, **guztiz elebiduna den euskal unibertsitate publiko bakarra da — euskaraz eta gaztelaniaz eskainitako gradu guztiekin — eta multicampus izatera du, egitura osoak baititu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan**. Hizkuntza- eta lurralde-baldintza bikoitz horrek **Estatuko beste unibertsitate batzuen baino askoz ere egitura- eta antolaketan ahaleraz handiagoa eskatzen du**, eta horrek are nabarmenagoa egiten du **finantzaketa nahikoa eta egonkorra behar izatea**, euskal unibertsitate-sistemaren hizkuntza-, lurralde- eta ikasketa-berezitasunera egokitua.

USLOk berak, **56. artikuluan**, berariaz jasotzen du:

«Unibertsitateek beren lurraldeetako hizkuntza ofizialak unibertsitateko transmisio-hizkuntza gisa ezagutzea eta erabiltzea sustatu eta erraztuko dute [...], eta, unibertsitate publikoei dagokienez, hizkuntza-berezitasuna finantzatuko da».


EHUK PROPOSATUTAKO PLANAK SEI BEKTORE KRITIKO ETA INTERDEPENDENTERI ERAGITEN DIE:

1. **Digitalizazioa eta datuak:** Sistemen berrikuntza integrala (egoitza elektronikoa eta GAUR barne), Estrategia Digitaleko Unitateak, larenak eta Datuarenak sortzea, nor-tasunen kudeaketa eta zibersegurtasuna **(4.688.868 €)**.
2. **Pertsonen zaintza (Denon Artean):** Zaintza integraleko zerbitzua, irakasle eta iker-tzaileen ordainsarien egokitzapena, belaunaldien sustapena eta erreleboa, eta eus-kara akademikoa bultzatzea **(74.356.760 €)**.
3. **Azpiegiturak:** Ohiko mantentze-lanak estandar teknikoan, SAO Arkitektura eta Obra Zerbitzua indartzea eta proiektu estrategikoak campusetan **(42.329.930 €)**.
4. **Unibertsitate-autonomia:** Zentroen autonomia eta proiektu estrategiko propioak **(59.718.779 €)**.
5. **Ikerketa eta transferentzia:** Antolakuntza indartzea, prozesuak digitalizatzea, la-guntza tekniko-juridikoa ematea eta karga burokratikoa arintzea **(5.516.531 €)**.
6. **Nazioartekotzea:** Titulazio bateratueterako egitura sendoak, mugikortasuna eta trazabilitate digitala **(383.371 €)**.
7. **Irakaskuntzako eta kudeaketako beste behar batzuk:** Zerbitzu nagusien araudia eta teknologia modernizatzea (gradua, graduondokoa, irakasle eta ikertzaileen erre-ktoreordetza, idazkaritza nagusia, gerentzia eta komunikazioa) **(5.152.226 €)**.

Guztira, eskatutako inbertsioa **192.146.465 milioi euro ingurukoa** da. Ez da diskrezionala: **ezin-bestekoa** da zerbitzuen degradazio atzeraezina saihesteko, legezko betebeharrak betetzeko, **egiturazko arrakala ixteko eta plangintza-, eraginkortasun- eta gardentasun-aukerak berres-kuratzeko**. Premien katalogazio honek ez du unibertsitatea "gizentzen": **erreskatatu**, ordenatu eta prestatu egiten du jasangarritasuneko, berrikuntzako eta kontuak emateko etapa berrirako, euskal gizarteak bere unibertsitate publikoari eskatzen dionarekin bat etorritz.


EHUK bere gain hartzen du erantzunkidetasuna: diagnostikoa egin du, lehentasunak ezarri ditu eta egiturak eta kronogramak diseinatu ditu. Horrela, **proposamen errealista, egiaztagarria eta eskalagarria** aurkezten da, **adabaki erreaktibotik planifikatutako kudeaketara** pasatzea ahalbi-detuko duena, unibertsitate-misioaren jarraipena eta ezagutzaren itzulera soziala bermatuz.

Deskribatutako mugak gorabehera, **gure unibertsitateak ausardiaz eta ilusioz begiratzen dio etorkizunari**. Askok dira bultzada eta laguntza behar duten **proiektu berriak eta eraldatzaileak**: **Pertsonentzako Arreta Integraleko Zerbitzua** abian jartzea, **Donostiako Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria**, **Klinika Sozial Odontologikoa** edo **Zorrotzaurreko Ezagutza Gunea**, **bizitzan zehar eguneratze profesionalaren eta prestakuntzaren behar berriei erantzuteko** sortua. Horri gehitu behar zaizkio **unibertsitate-etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko eta campusen konektibitatea hobetzeko planak, garraio iraunkorraren bidez**. Errektoretza-talde honek harata-go joan nahi du, unibertsitate moderno, inklusibo eta dinamikoa proiektatu nahi du, **bikaintasun akademikoa, konpromiso soziala eta herrialdearen zerbitzurako berrikuntza** uztartuko dituen.



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

The background of the slide is a grid of red squares of various sizes. A large, white, sans-serif number '02.' is positioned in the upper left quadrant. The grid pattern is more dense and varied in square sizes on the right side of the slide.


02.

Eraldaketa digitala

4.
688.
868 €

LABURPENA:

2.065.234 €	ESTRATEGIA ETA ADMINISTRAZIO DIGITALAREN UNITATEA
352.231 €	AAREN UNITATEA
764.984 €	DATUAREN UNITATEA
26.555 €	UNIBERTSITATE TXARTELA BIRTUALA ETA NIK INTEGRATZEA
314.189 €	EDUWALLET: SW OPEN-SOURCE-AREN ANALISIA ETA PILOTO BAT ABIATZEA
125.675 €	IDENTITATEEN KUDEAKETA
840.000 €	GAUR KUDEAKETA AKADEMIKORAKO TRESNAREN EBOLUAZIO AZTERKETA
100.000 €	AGORA DIGITALA
100.000 €	EUSKARAREN ERREGISTRO AKADEMIKOEN MONITORIZAZIOA ETA TERMINOLOGIA-PLANGINTZA



Eraldaketa digitala

4.688.868 €

DIGITALIZAZIOA: EHU MODERNIZATZEKO EGITURAZKO BEHARRA

1.1. Sarrera

Eraldaketa digitala ardatz estrategikoa da gaur egun edozein unibertsitate publikoren funtzionamendurako, gardentasunerako eta lehiakortasunerako. Unibertsitate Sistemaren 2/2023 Lege Organikoak (USLO) ezagutzaren eta eraldaketa digital globalaren gizartearen erdigunean kokatzen ditu unibertsitateak. Arau horren arabera, digitalizazioa ez da soilik teknologiak txertatzea; aitzitik, eredu pedagogikoei, kudeaketa instituzionalari eta ezagutzarako sarbidea-ri eragiten dien prozesu integral bat da. Testuinguru horretan, unibertsitate irekia, jasanga-rria, inklusiboa eta berritzailea bultzatzen da, XXI. mendeko erronka sozial eta teknologikoei erantzuteko gai izango dena.

Esparru horrekin bat etorritik, USLOk kudeaketa digitalean, efizientzia administratiboan eta gardentasunean oinarritutako unibertsitate-gobernantza sustatzen du, eta, aldi berean, teknologiaz baliatzen diren irakasteko eta ikasteko modu berriak bultzatzen ditu. Prestakuntza hibridoak eta etengabeko hezkuntzak erakusten dute ingurune digitalaren eskaeretara egokitzen diren egitura akademiko malguen beharra dagoela. Era berean, arauak indartu egiten du honako hiru osagai hauek oinarritutako ikerketa: zientzia irekiaren printzipioak, datuen elkarrekin-garritasuna eta ezagutzarako sarbide irekia.

Orobat, legeak azpimarratzen du garrantzitsua dela, jakintza demokratizatzeko estrategia baten parte gisa, ikasleen eskubide digitalak bermatzea eta unibertsitateko ondarea digitalizatzea. Hori guztia lortzeko, beharrezkoak dira azpiegitura teknologiko sendoak, zerbitzu digital integratuak eta berrikuntzara eta kontuak ematera bideratutako kultura instituzionala. Esparru horretan justifikatzen da unibertsitatearen gaitasun digitalak indartu beharra, aurrera egiteko eredu efizienteago, gardenago eta ezagutzarako sarbide unibertsalarekin konprometituago baterantz.

Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) kasuan, beste erakunde batzuekin alderatuta, **azken urteotan ez da inbertsio jarraiturik egin ez barne-kudeaketan, ez unibertsitate-komunitatearekiko eta gizartearekiko harremanetan**. Egindako diagnostiko instituzionalak lehentasunezko hiru hobekuntza-eremu erakusten ditu: **zaharkitze teknologikoa eta ekosistema digitalaren zatiketa, azpiegitura digitalaren gutxiegitasuna eta giza baliabide espezializatuen falta**.

Egoera horren **adibiderik paradigmaticoena GAUR plataforma** da, irakaskuntza kudeatzeko eta kudeaketa akademikorako erabiltzen dena. Duela bi hamarkada baino gehiago garatua, GAUR zaharkitua geratu da: Interneten hastapenetan zegoenaren antzekoak dira interfazea eta arkitektura teknologikoa. Egungo tresna digitalekin integratzeko ezintasunak —bereziki auten-tifikazio eta sinadura digitaleko prozesu seguruekin lotutakoekin— mugatu egiten ditu unibertsitateko sistema osoaren efizientzia, erabilgarritasuna eta elkarreragingarritasun-ahalmena. Plataforma horren berrikuntza osoa prozesu teknikoki konplexua eta estrategikoki kritikoa da. Haren plangintza aurreratuta dago, eta, 2026an hasi ahal izateko, aurrekontu-zuzkiduraren be-harrean. Prozesu osoa 4,2 milioi eurokoa da, baina 2026 urtera begirako kudeaketa 840.000 eu-roko kostua izango luke.

Premia horri gehitu behar zaio indarrean dagoen lege-esparrua bete beharra, zeinaren arabera, 2017az geroztik, administrazio publiko guztiek formatu digitalean eskaini behar baitituzte beren prozedurak. Modu koherente eta jasangarrian aurrera egin ahal izateko EHUk **Estrategia eta Administrazio Digitaleko Unitate** bat sortu behar du Unibertsitatearen egoitza elektronikoa garatzeko; administrazio-prozeduren digitalizazio integrala; administrazio digitala ezartzen eta etengabe hobetzen laguntzeko bulego tekniko bat; unibertsitatearen tresna digitalen eta beste administrazio publiko batzuenen arteko integrazioa eta elkarreragingarritasuna garatzea.

Era berean, **erantzun egituratua eskatzen du adimen artifizialak (AA) goi-mailako hezkuntzan duen zeharkako inpaktuak**. EHUn dokumentu bat argitaratu da unibertsitatean AA sortzailearen erabilerari buruz hausnartzeko eta hura bateratzeko. Horrekin batera, webgune informatibo bat argitaratuko da, ekimenak, ideiak eta hausnarketak jasotzeko. Bide horretan, beharrezkoa da **Adimen Artifizialeko Unitate** bat sortzea, erabilera etiko eta arduratsuaren beharrei erantzuteko ildo estrategiko gisa, bai langileei (irakasle eta ikertzaileak, eta TEKAZEL) prestakuntza emateko, bai erabilera orokor edo instituzionalerako AAKo tresnak hautatzeko eta baliabide propioak sortzeko eta garatzeko. Laburbilduz, bi helburu hauek dituen unitate bat sortzea: AA irakaskuntzan eta ikerketan modu arduratsu eta etikoan integratzeari buruz hausnartzea, eta barne-sistemetan eta prozeduretan nola txertatu aztertzea eta horretan gidatzea, era horretan administrazioaren efizientzia eta arintasuna hobetzeko.

Horrekin batera, unibertsitatearen kudeaketa modernoak **Datuen Unitate** bat behar du, informazio instituzionalaren trazabilitatea zentralizatzeko, egituratzeko eta bermatzeko gai izango dena. Gaur egun, kanpoko edozein datu-eskaerak —adibidez, Eusko Jaurlaritzaren eskaerak— zerbitzu teknikoak betetzen ditu, eta agerian uzten du pertsonen kudeatzaile maisu bat behar dela eta *datu-laku* instituzional bat diseinatu eta hedatu behar dela.

Bestalde, EHUnen estrategia digitalak **unibertsitate-txartela birtualizatzerak eta NIKarekin integratzerak** (Eusko Jaurlaritzaren plataforma) jo behar du, era horretan unibertsitate-zerbitzueterako sarbide arin, seguru eta bateratua ahalbidetzeko. Testuinguru horretan kokatzen da *eduWallet* proiektua. Unibertsitateko pasaporte digital horren bidez, unibertsitateko komunitatearen identitateen, kredentzialen eta eskubide digitalen kudeaketa segurua erraztuko da. *Open source* softwarean oinarritua dago, eta, hari esker, gainera, beste hezkuntza- eta adminis-trazio-erakunde batzuekin elkarreragingarritasun-pilotu bat hasteko aukera izango da.


Osagarri gisa, ezinbestekoa da unibertsitate-identitateen kudeaketa sendotzea. Identitate digitalak kudeatzeko eta integratzeko sistema sendoa izateak ahalbidetuko du unibertsitateko aplikazio, zerbitzu eta prozesuetarako sarbidea homogenea, segurua eta efizientea izatea. Identitate digital bakarraren eredu hori sendotzeak, gainera, prozesuen automatizazioa eta sinplifikazio administratiboa erraztuko ditu.

Bestalde, alderdi parte-hartzailea ere izan behar du eraldaketa digitalak. **Agora Digitala** sortzea urrats erabakigarria da norabide horretan. Decidim-en —software libreko herritarren partaidetzarako plataforma bat— oinarrituta, Agora Digitalak unibertsitateko komunitateari bere burua demokratikoki antolatzeke aukera emango dio, bai eta gardentasuna, eztabaida, deliberazioa eta erabakiak hartzeko parte-hartze aktiboa sustatzekoa ere. Gune digital horrek gobernantza parte-hartzailea indartuko du, bai eta unibertsitate publiko ireki, demokratiko eta berritzaile baten balioekiko konpromiso kolektiboa ere.


Premien atal horretaz gain —lege-beharrei eta garapen teknologikoei erantzuten dieten proiektu berrietan oinarritutako premiak—, kontuan izan behar dira IKT zerbitzuetako teknikariek **egitura digitalak** (plataformak eta beste aplikazio batzuk) **mantentzeko** beharra. Horrez gain, erakunde digitalki segurua eta autonomoa izateko, gehitu behar ditugu gure aplikazio eta plataforma guztien **zibersegurtasuna** eta arlo horretako **prebentzioa eta prestakuntza**.

Azkenik, digitalizazioaren atalean sartzen ditugu **testu akademikoen monitorizazioa eta plangintza terminologikoa**. EHUn euskarak presentzia handia du irakaskuntzan eta irakaskuntza-materialen sorkuntzan, lan akademikoen prestakuntzan (GRAL, MAL, DT) eta liburu, aldizkari eta abarren gisako argitalpenetan. Euskarazko testu akademikoen monitorizazioa, bai eta testu horietan erabilitako terminologia eta fraseologia ere, testu-corpusen eta terminologia eta fraseologia aterakinen bidez, ezinbestekoa da euskararen erregistro akademikoak ikertu eta irakasteko. Monitorizazio hori beharrezkoa da kontsulta-baliabideak eta testu akademikoak eta administratiboak idazteko laguntza-tresnak garatzeko. Testu akademikoak biltzea ere ezinbestekoa da hizkuntza-ereduak trebatzeko, hizkuntza-hezkuntzako tresnak garatzeko.

02.




03. →



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco




03.

Pertsonen zaintza

74.
356.
760 €

LABURPENA:

1.200.000 €	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA INDARTZEA + ZAINZA INTEGRALEKO ZERBITZUAREN PILOTUA ARABAKO CAMPUSEAN
66.731.792 €	IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN BALDINTZAK HOBETZEA
1.500.000 €	IKASLEEN OINARRIZKO BEHAR DIGITALAK BERMATZEA IRI LANGILEAK: ORDENAGAILUAK
502.000 €	TEKAZEL MAILEN IGOERA
3.758.317 €	PREBENTZIOA, ESKU-HARTZEA ETA KUDEAKETA ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA ETA OSASUNAREN ZAINZA (PREMAZKO KONTRATUA)
525.000 €	EUSKARA AKADEMIKOA, PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA PLANA
139.651 €	BERDINTASUN-TEKNIKARIAK (2)



Pertsonen zaintza

74.356.760 €

PERTSONAK ZAINTzea: DENON ARTEAN PROIEKTUAREN IZATEKO ARRAZOIA

3.1. Sarrera

Errektoretza-talde honen “**Denon Artean**” proiektuaren funtsezko alderdiari dagokio atal hau: **pertsonak, unibertsitate-komunitate guztia, zaintzea**. Konpromiso horrekin bat etorritik, **EHUko Zaintza Integraleko Zerbitzua** da garatu beharreko funtsezko proiektuetako bat, unibertsitate-esparruan ongizatea eskaintzeko premia gero eta handiagoari erantzuteko sortua. Zenbait arrazoi direla medio, bizitza akademikoa estres-iturri bilakatu da kolektibo guztientzat: **ikasleentzat**, presio psikologikoaren eta haien ibilbidea baldintzatzen duten zaurgarritasun sozial, ekonomiko eta familiarreko egoeren ondorioz; **irakasle eta ikertzaileentzat (IRI)**, lehiakortasun handiaren eta ibilbide akademikoaren eskakizun handien eraginez; teknikarientzat eta kudeaketako administrazio eta zerbitzuetako langileentzat (**TEKAZEL**), lan-karga gero eta astunagoak eragindako estresaren ondorioz. Testuinguru horretan, **pertsonarengan zentratutako arreta diziplinarteko eta integrala** eskaini nahi du **Zaintza Integraleko Zerbitzuak**, espazio batean bilduz gaur egun bereizita eskaintzen diren baliabideak (orientazioa, hezkuntza-inklusioko zerbitzua, arreta psikologikoa, soziala, osasunaren eta berdintasunaren alorretakoa, ekonomikoa, etab.) eta osasun-sistema publikoekin eta gizarte- eta etxebizitza-zerbitzuekin koordinatuz. Modu horretan, **pertsonak zaintzen dituen erakunde gisa sendotzen ari da unibertsitatea**, bat etorritik Eusko Jaurlaritzaren arreta- eta zaintza-politikarekin eta Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuekin; politika eta helburu horiek lotura estua dute osasunarekin eta ongizatearekin, genero-berdintasunarekin, desberdinkeriak murriztearekin eta kalitatezko hezkuntzarekin. Laburbilduz, premia bizi bati erantzuten dio proiektuak: **ikasleei, irakasle eta ikertzaileei eta TEKAZELri beren potentziala garatzen eta bizi- eta lan-baldintzak hobetzen lagunduko dien unibertsitate-ingurune ekitatibo, inklusibo eta osasungarri bat sortzea** eta, hala, gizarte osoaren ongizatea bultzatzea.

2026ko aurrekontuetan aurreikusten da **Zaintza Integraleko Zerbitzu osoa martxan jartzea Arabako Campusean proiektu pilotu gisa**; hain zuzen, errektoreordetzaren eraikinean. Halaber, **Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetan funtsezkotzat jotzen da langile-taldea indartzea —zerbitzu-koordinatzailearen figura, psikologoa eta berdintasun-teknikariak sartuz— eta erreferentziatzeko arreta-puntuak sortzeko aukera emango duten** eta unibertsitate-komunitate osoarentzako estaldura homogeen eta ekitatiboa bermatuko duten **proiektuak garatzea**, gaur egun ez baitago halakorik.

Bestalde, EHUko irakasle eta ikertzaileek gaur egun dituzten lan-baldintzak eta soldatak ez datoz bat Euskadik bizi duen errealtate sozioekonomikoarekin, ezta haien lanak gizarteari ematen dion balioarekin ere; egoera horrek desberdinkeriak, desmotibazioa eta talentu-galera eragiten ditu. Unibertsitateko komunitateak egindako ahaleginari esker unibertsitatea munduko 400 onenen artean dagoen arren (Shanghaiko rankingaren arabera), lorpen hori ez da baldintza egoki edo duinetan egiten; batez ere, ibilbide akademikoaren lehen faseetan. Irakasle eta ikertzaileen soldatak —funtzionarioenak eta lan-kontratua dutenenak— estatuko taulen araberrakoak dira eta ez Euskal Autonomia Erkidegoko bizi-mailaren araberrakoak. Erosahalmenaren galera esanguratsua eragiten du horrek Euskadiko sektore publikoko beste kolektibo batzuen aldean (adibidez, bigarren hezkuntzako irakasleak eta administrazioako langileak). Gainera, 2006an arrakala hori zuzentzeko sortu ziren soldata-osagarriek balioaren % 50 inguru galdu dute, ia bi hamarkadatan eguneratu ez direlako; horrenbestez, jada ez dute betetzen zegokien konpentsazio-funtzioa (2011n bateratu baino ez ziren egin; haien zenbatekoa ez da aldatu sortu zirenetik).

Horren guztiaren ondorioz, **lan-baldintzak hobetzea premia estrategiko handikoa da**, euskal unibertsitate-sistema publikoaren jasagarritasuna bermatzeari dagokionez. Alde batetik, ezinbestekoa da **soldata-osagarriak** erosahalmenaren galera metatuaren arabera **eguneratzea**; beste alde batetik, **osagarri autonomiko orokor bat ezarri** behar da unibertsitateko irakasleen soldatak bigarren hezkuntzako irakasleen soldaten parean jarriko dituen, erantzukizunarekin, ikerketa-dedikazioarekin eta unibertsitateko lanaren ekarpen sozialarekin bat datozen ordainsariak bermatzeko.

Gaur egun, **unibertsitateko ordezkari irakasle batek 1.900 euro inguru jasotzen ditu hilean; bigarren hezkuntzan, aldiz, lanpostu baliokidea duen langile batek 2.600 euro kobratzen ditu, batez beste. Irakasle laguntzaile doktoreen egoera ez da hobe; lanpostu hori da lanpostu finkoa (Titularra edo Agregatua) lortzeko lehen urrats egonkorra, eta sei bat urte ematen dituzte ordezkari irakasleen antzeko soldata-kondizioekin (batzuetan okerragoa izaten da egoera, doktore-osagarria galtzen baita; lanpostua lortzean, ordezkapen-aldian baino gutxiago kobratzen da). Praktikan, unibertsitateko irakasle batek, institutuko irakasle baten antzeko kondizioak lortzeko, meritua egin behar ditu ordezkari gisa, doktore-tesia egin, bi oposizio-fase gainditu (laguntzaile doktore moduan aritzeko eta titular edo agregatu gisa jarduteko) eta C eta B soldata-osagarriak lortu —irakasle-jarduerari, ikerketa-kalitateari eta bikaintasun akademikoari lotuak—. Prozesu hori, batez beste, **berrogei urteren bueltan** lortzen da, **bederatzi eta hamabost urte bitarteko ibilbide profesionala** egin ondoren, doktore-tesia hasten denetik edo lehen ordezkari-kontratutik hasita. Ezegonkortasun luze horren eta soldata-desorekaren ondorioz, **ordezkapen-poltsa asko hutsik geratzen dira**, eta **unibertsitateak zailtasun handiak izaten ditu ikerketarako eta irakaskuntzarako talentua erakarri eta atxikitzeko**; modu horretan, arriskuan jartzen da belaunaldi-erreleboa eta EHUren ezaugarri den bikaintasun akademikoa.**

Irakasle eta ikertzaileen promozioa da EHUren egiturazko beste erronka nagusi bat. Hainbat urtez, goi-mailako kategorietarako akreditazioa (katedrak eta irakasle osoak) zuten irakasleen kopurua askoz handiagoa izan da lanpostuen kopurua baino; gainera, lanpostu horiek mugatuak ziren, sail bakoitzak bakar bat eska baitzezakeen urteko.

Egoera horrek **itxarote-zerrenda luze bat** eragin du (**gaur egun sei urtekoa da batez beste**; kasu batzuetan, **bederatzi edo hamar urtekoa** ere izaten da). Aldiz, estatuko unibertsitate gehienetan, zerrenda ez da **bi urtetik** gorakoa izaten eta **lanpostua automatikoki sortzen da** akreditazioaren ondoren. Desberdintasun hori dela eta, EHUko ibilbide akademikoa **oztopoz betetako**

bide gisa ikusten da; finantziazio faltak antzeko eragina du ibilbidea hasi berri dutenengan eta etapa aurreratuetan daudenengan, eta moteldu egiten da talentuaren garapena eta merezi-mendu akademikoen aintzatespena. Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoan (USLO) aurreikusitako sustapen-prozedura berria 2025ean onetsi ondoren (urteko kupoak ezabatzen ditu, eta lanpostuak kopuru-mugarik gabe eskatzen aukera ematen du), 2025eko deialdia ireki du unibertsitateak —200 eskaera baino gehiago espero dira — eta **2028rako prozesua normalizatzeari** aurreikusten du, lanpostu-kopurua urte bakoitzean lortutako akreditazioei doituz. **Gaur egungo muga ekonomikoa da eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren mende dago**, haren baimena behar baita lanpostu finko berriak sortzeko. Oro har, 2024-2028 aldirako sustapen-planak 2026rako aurrekontuetan eragina izango duen **inbertsio bat eskatzen du**, zeina beharrezkoa baita **barruko talentua aintzatesteko, ibilbide akademiakoak egonkortzeko eta belaunaldi-erleboia bermatzeko euskal unibertsitate publikoan.**

TEKAZELei dagokionez, eta **2026ko aurrekontuaren testuinguruan, premia nagusietako bat da 13. eta 14. mailetako** funtzionarioen (C1 taldea) egoerari heltzea. Kolektibo horrek, gaur egun, **28.000 eta 29.500 euro bitarteko ordainsari gordinak** jasotzen ditu **urtean**; hau da, **1.650 eta 1.750 euro bitarteko soldata garbia dute hilean**, 14 ordainketatan. Administrazio-eskalako mailarik baxuenetarikoa dira, nahiz eta kasu askotan beren kategoriari dagozkion funtzioak aise gainditzeko dituzten zereginetan jardun —kudeaketa- eta koordinazio-lanak eta arduradun akademikoei zuzeneko laguntza ematea—, konpentsazio ekonomiko egokirik eta mailaz igotzeko aukera errealik gabe. Egoera horrek **egiturazko ezegonkortasuna eta desberdinkeria nabarmena** eragiten ditu. Horregatik, lehentasuna du **13. eta 14. mailak pixkanaka igotzeak eta ezabatzeak**, TEKAZELen lan-baldintzak duin bihurtzeko eta egiten duten lanaren errealitate funtzionalera egokitzeko.

Euskara ere ezinbestekoa da pertsonak zaintzeko garaian, unibertsitate-bizitzari eusten dion zaintza sinboliko eta kulturalaren parte baita. Euskara zaintzeak esan nahi du zaintzea nola ko-munikatzen den unibertsitatea, nola hartzen, entzuten eta aitortzen duen bere komunitatea; funtsezko osagaia da **hizkuntza-eskubideen berdintasuna eta gizarte-kohesioa esparru akademikoan**. Gainera, pertsonen ezagutza eta arreta herrialdeko berezko hizkuntzan garatzea bermatzen du, unibertsitate-komunitatearen nortasun kolektiboa eta ongizatea indartuz. EHUK, unibertsitate publikoa denez, **euskararen ezagutza, erabilera eta garapen akademikoa sustatzeko ardura legala eta etikoa du**, Estatutuek, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak eta USLOk ezartzen duten bezala. Agindu hori betetzeko, beharrezkoa da Euskararen IV. Plan Gidaria (2023-2027) eta Hizkuntza Ofizialen eta Ez-ofizialen Erabilera Plan berrira bideratutako baliabi-deak indartzea. Biak ala biak funtsezko tresnak dira ekoizpen akademikoen hizkuntza-kalitatea hobetzeko eta irakasle eta ikertzaileen etengabeko prestakuntza sustatzeko komunikazio-gaitasun aurreratuetan.

Eginkizun horietarako izendatutako **langileak oso mugatuak** dira gaur egun —dedikazio partzialeko bi zuzendaritza eta lanaldi osoko teknikari bat—, eta horrek zaildu egiten du pla-na bere osotasunean garatzea. Horregatik, Euskararen Plan Gidariko irakasgaietako irakasleak (28 irakasle) **hizkuntza-plangintzan, testu akademikoen berrikuspenean, prestakuntzan eta irakasle eta ikertzaileentzako aholkularitzan inplikatzeko proposatzen da**, eginkizun horiek beren irakaskuntza-kargaren barruan formalki aitortuz eta talde-lana sustatuz, euskarazko unibertsitate-praktika koherentea eta kalitatezkoa sendotzeko.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da sailetan, ikerketa-taldeetan eta administrazio-unitateetan **euskara-arduradunen sare bat aktibatzea**, erakundeen aintzatespenarekin (JARDUNren bidez, irakasle eta ikertzaileen kasuan, eta postuaren monografiaren bidez, PTGASen kasuan), unibert-sitate osoan hizkuntza-planaren aplikazioa eta jarraipena ziurtatuko duena.


2026ari begira, **lehentasunezkoa da euskara akademikoko prestakuntza-planaren finantzaketa ziurtatzea**, irakasle espezializatuak indartzea, prestakuntza-eskaintza masterretara eta doktoregora zabaltzea, eta hizkuntza-plangintzari lotutako lanpostuak baliabide egonkorrez hornitzea. Aurreikusitako 525.000 euroko inbertsioari esker, euskara ezagutza-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa sendotu ahal izango da, euskal unibertsitate publikoaren konpromiso instituzional eta legalak betez eta Euskadiko hizkuntza eta kultura biziberritzeko funtsezko eragile gisa duen eginkizuna indartuz.

Azkenik, prebentzioaren esparruan, lehentasunetako bat da **Prebentzio Zerbitzua indartzea**, nola **Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea** betetzeari dagokionez, hala unibertsitateko komunitate zabala eta askotarikoaren premiei behar bezala erantzuteaz ari garela. Segurtasunaren, lan-osasunaren eta langileen ongizatearen alorreko arau-eskakizunak betetzeko, campus guztietan prebentzio-ekintza efikazak egiteko aukera emango duen egitura tekniko egonkor eta nahikoa behar da. Aldi berean, **berdintasunarekin eta genero-indarkeria desagerraraztearekin** duen konpromisoa sendotu behar du unibertsitateak; gero eta gehiago aplikatzen den protokolo aktibo bat du bi eremu horietan. Salaketak eta haien ondoriozko ekintzak areagotu egin dira —adierazle positiboa da, konfiantza eta **unibertsitate-espazio seguruago** baterako aurrerabidea erakusten dituen— eta horrek estuasunean jarri du gaur egungo lantaldea, ez baitu behar adina baliabide arreta egoki eta proaktibo bat garatzeko. Horretarako, **2026ko aurrekontuaz** ari garela, **beharrezkoa da berdintasuneko bi teknikari** ekartzea, akonpainamendua, esku-hartzea eta sentsibilizazioa indartzeko. Modu horretan, erakundeak berdintasunaren eta genero-indarkeria prebenitzearen alorretan dituen konpromisoak betetzea bermatuko da.

Horrez gain, **oinarrizko baldintza material jakin batzuek okerrera egin dute**, hala nola **ordenagailu pertsonala izateko itxaron-zerrenda** bat izateak. Egoera hori bereziki kezagarria eta jasanezina da unibertsitate publiko batean, tresna hori izatea ezinbestekoa baita irakaskuntza-, ikerketa-, kudeaketa- eta administrazio-lanak normaltasunez egiteko. **Gabezia horiek zuzentzea, halaber, zaintza instituzionalerako modu bat da**, eta beharrezko baldintza unibertsitate-komunitate osoaren lan-osasuna eta ongizatea bermatzeko.


Zenbatespenen arabera, EHUn euskal errealitatera egokitutako lan-baldintzak zaintzeko eta hobetzeko, **74.356.760 euro** beharko dira 2026rako, zeinak erabiliko baitira kondizio duinak, ongizate emozionala, berdintasuna eta hizkuntza-garapena bermatzeko. Aurrekontu-ahalegin hori beharrezkoa da unibertsitate-komunitatearen ikuspegi integralari erantzuteko eta unibertsitateak **pertsonak zaintzearekin duen konpromisoa berresteko bikaintasun instituzionalaren eta haren xede publikoaren ardatz gisa**.

03.



04.





EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

04.

Azpiegiturak

42.
329.
930 €


LABURPENA:

25.375.620€ EHUREN 845.854 M2 x 30€ MANTENU EGOKIA EGITEKO

1.631.830 € ARKITEKTURA ETA OBREN PERTSONALA HANDITZEA

15.322.480€ CAMPUSETAKO OBRAK ETA PROIEKTU ESTRATEGIKO BATZUK

1. ZAINZA INTEGRALERAKO ZERBITZUAREN ESPAZIOA (ARABA)
2. KLINIKA ODONTOLOGIKO SOZIALA (BIZKAIA)
3. EZAGUTZAREN LABORATEGIA ZORROTZAURRE (BIZKAIA)
4. MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZTA FAKULTATEAREN ERAIKIN BERRIA (GIPUZKOA)



Azpiegiturak

42.329.930 €

UNIBERTSITATE-AZPIEGITURAK: NARRIADURATIK JASANGARRITASUNERA

4.1. Sarrera

Mantentze-lanetarako inbertsio jarraiturik egon ez denez, unibertsitatearen azpiegiturak **mugako egoera** batera iritsi dira: **itoginak**, kolapsatzeko arriskua duten **egitura zurkaiztuak**, kondizio klimatiko lotsagarriak ikasgela, laborategi eta bulegoetan eta **fatxada eta instalazio hondatuak**. Unibertsitate publikoak mantentze-lanak behar ditu **etengabe**; ez da nahikoa ohiz kanpoko eskuhartzeak egitea hondatze-mailak pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen duenean. 2025ean mantentze-lanetara bideratu zen aurrekontuak argi eta garbi erakusten du eskasia hori: **1,8 milioi euro 845.854 m² zaintzeko** (hau da, **2 euro metro karratuko**), **irizpide teknikoaren arabera**, aldiz, **30 €/m²** izan ohi delarik halako ezaugarriak dituzten azpiegituretarako.

Unibertsitateak **ohiko finantziazio egonkorra eta nahikoa** behar du mantentze-lan planifikatuak bermatzeko, ez **larrialdiko ohiz kanpoko planak**, eraikinak egoera kritikoan daudenean bakarrik aktibatzen direnak (adibidez, Azpiegiturak Hobetzeko Hainbat Urtetarako Plan Bereziak). Unibertsitate-bizitza oso eta aberats baterako oinarritzko azpiegiturei ere eragin die baliabideen falta horrek; adibidez, **kirol-instalazioei**. Haietako batzuk **itxita** daude, **egoera txarrean** daudelako. Horren adibide ditugu **Leioako Campuseko atletismo-pista eta frontoiak**: itxita eta **erabateko utzikeria-egoeran** daude eta **debekatua dago sartzea**; hala ere, pertsona batzuk sartzen dira, indarrez, itxituraren **alanbrezko hesian zuloak eginez**.

Bestalde, EHUK beste urgentziazko lan batzuk ditu, plangintza honetan sartuta daudenak; izan ere, espazioak araudi tekniko eta segurtasun-araudi berrietara egokitzearen ondorio dira, eta araudi horiek ez gauzatzeak eragin zuzena du unibertsitatearen ikerketa-jardueran. Adibide bereziki esanguratsua da abenduaren 4ko TES/1180/2020 Agindua, 2. mailako euste-instalazio biologikoetan (NCB2) langileak agente biologikoekiko esposizioarekin lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa, 2021eko azaroaren 19tik nahitaez bete beharrekoa.


Zientzia eta Teknologia Fakultatean (ZTF) gutxienez 16 lokaletan garatzen dira NCB2 babes-maila hori behar duten ikerketa-proiektuak; hala ere, horietako batek bakarrik betetzen du gaur egun indarrean dagoen araudia. Gainerakoa, 600 m²-tik gorako azalera duena, ezarritako baldintza teknikoen arabera egokitu gabe dago, nahiz eta araudiak lau urte daramatzan indarrean. Egoera horrek ikertzaileen eta ikasleen segurtasuna arriskuan jartzen du, eremu horietako batzuek irakas-kuntza-erabilera ere badutelako. Ez-betetze horren arrazoi nagusia, aurreko urteetan jakinarazia, beharrezko obrak egiteko aurrekontu espezifikorik ez izatea da.

Adibide horrek argi eta garbi erakusten du premiazkoa dela unibertsitate-azpiegiturretara bideratutako finantzaketa indartzea, ez bakarrik eraikitako ondarea mantentzen dela bermatzeko, baita indarrean dagoen araudia betetzen dela eta ikerketa-jarduerak baldintza egokietan jarraituko duela bermatzeko ere.

Egoera horretan, **Arkitektura eta Lanen Zerbitzua sendotzea egiturazko lehentasuna** da. Neurri egokiko mantentze-lanen zerbitzu bat edukitzea **ezinbestekoa da unibertsitatearen funtzionamendu seguru eta duina bermatzeko**, baita **proiektu estrategiko berriak aurrera ateratzeko eta campusetako espazio-arazoei erantzuteko** ere. Egitura teknikoa indartuta —lanpostu hutsak betez, lanpostuak sendotuz, profil espezializatu berriak sortuz eta mantentze-lanetako eta garbiketako brigadak esleituz hiru campusetan—, posible izango da **gaur egungo karga arintzea, larrialdi-egoeretan eta gertaeretan erantzuteko gaitasuna hobetzea** eta epe ertainean eta luzean **planifikatzeko gaitasuna berreskuratzea**. Hori da unibertsitateak **hondatze- eta larrialdi-egoe-ratik irteteko** duen modu bakarra, erakundearen ondarean mantentze-lan jarraitu, eraginkor eta jasangarriak bermatuko baitira. Aldi berean, berme eta guzti bultzatuko dira **birgaitze-proiektuak eta eraginkortasun energetikoari eta espazioak zabaltzeari dagozkion proiektuak**, baita **etorkizunean ezinbestekoak** izango diren **azpiegitura berriak** ere, hala nola **Klinika Sozial Odontologikoa, Zorrotzaurreko Ezagutzaren Laborategia, Arabako Campuseko Zaintza Integraleko espazioa eta Gipuzkoako Campuseko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria**.


Eremu honetan eskatutako aurrekontuak helburu hauek ditu: **845.854 m²-ak** mantentze-lanetarako **30 €/m²-en** irizpide teknikoarekin biderkatzea (urtean gutxi gorabehera **25,4 milioi euroko** zuzkidura ekarriko luke horrek unibertsitate-instalazioen ohiko mantentze-lanak bermatzeko); **zerbitzu teknikoak sendotzea (1,6 milioi) eta 20,1 milioi campus bakoitzeko lehentasunezko proiektu estrategikoak abiarazteko**. Azpiegituren alorreko **47,1 milioi euroko finantzaketa** horrek aukera emango luke unea arte metatutako premiei erantzuteko eta euskal unibertsitate publikoaren ondarearen jasangarritasuna, segurtasuna eta modernizazioa bermatzeko.

04.




05.





EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

The background of the slide is a light purple grid. A single square in the grid, located in the lower right quadrant, is white. The number '05.' is written in a large, white, sans-serif font in the upper left quadrant of the slide.

05.

Unibertsitate-autonomia

59.
718.
779 €

LABURPENA:

**URTEA DEFIZITIK GABE IXTEKO SALBUESPENEZKO DIRU-SARRERA
AURREKONTU ARRUNTEAN SARTZEA 20.000.000 €**

ZENTROEN AUTONOMIA:

12.000.000 €	EKIPAMENDUAREN ETA GELEN HORNIDURA BERRITZEA: MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA (BILBO)
9.602.000 €	IRAKASKUNTZA AZPIEGITURA: ENTXUFEAK ETA BESTELAKO PREMIAK
3.488.779 €	PERTSONALA

PROIEKTU ESTRATEGIKO PROPIOAK:

12.400.000 €	CFAAREN KONTSOLIDAZIOA, ERAIKINAREN ETA MIKROKREDENTZIALETARAKO ESPAZIOAREN JABETZEA
230.000 €	MUGIKORTASUN PLANA
2.000.000 €	LEIOAKO EGOITZA SOZIAL BERRIAREN PROIEKTUA



Unibertsitate-autonomia

59.718.779 €

UNIBERTSITATE-AUTONOMIA

5.1. Sarrera

Legez jasota dago **unibertsitate-autonomia** eta unibertsitate-sistemaren oinarrietariko bat da. **Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 3. artikuluan** xedatzen denez, unibertsitateek **“beren ildo estrategikoak ezarriko dituzte irakaskuntza-politiken, ikerketaren eta berrikuntzaren, kalitatearen, kudeaketa finantzarioaren, langileriaren, ikasleen, kulturaren eta nazioartekotzearen alorretan”** eta esplizituki zehazten da **“autonomia ekonomikoa eta finantzarioa izatea”** 54. artikuluan. Testuinguru autonomikoan, **Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak** ere printzipio hori jasotzen du **89. artikuluan («Printzipio orokorrak»):** “Unibertsitatea autonomoa da bere kudeaketa egiteko, eta eragimen, eraginkortasun eta kalitatea hobetzearen printzipioen pean jarduten da”. Beraz, bi esparru arauemaileetan aitortzen da unibertsitate-autonomia unibertsitate publikoen funtzio akademiko, zientifiko eta sozialak garatzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Hala ere, autonomia hori eraginkorra izan dadin, **nahitaezkoa da unibertsitateak benetako ahalmen finantzarioa izatea, proiektu estrategiko propioen alde egin dezan autonomiaz eta ikerketa-ildo hasiberriak bultzatzeko, baita gobernuek definitutako unibertsitate-proiektuetatik haragokoak direnean ere.** Hori izango da askatasun akademikoa, berrikuntza eta unibertsitateak euskal gizartearekin duen konpromisoa epe luzera bermatuko dituen autonomia era-batekoa eta erreala izateko modu bakarra.

Autonomia ekonomiko eta akademiko hori erabat bermatzeko, **ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren diru-hornidura arruntean premiaz sartzeari ezohiko moduan 2022tik ekitaldia ixtean urtero unibertsitateara transferitzen diren baliabide gehigarriak — 15-20 milioi euro urtean —.** Urtero, aurrekontua egitean, EHUk finantzaketa arrunt erabilgarria gainditzen duten egiturazko beharrak identifikatzen ditu, eta, beraz, ekitaldiaren hasieratik badakigu ekarpen osagarri hori beharrezkoa izango dela kontuak orekatu ahal izateko. **Praktika hori behin eta berriz errepikatzen da, eta ez da desiragarria; egiturazko desoreka bat dagoela agerian uzten baitute,** eta unibertsitatearen planifikazio- eta erabaki-ahalmena mugatzen. **Baliabide horiek egiturazko finantzaketan sartuta bakarrik planifikatu ahal izango du unibertsitateak aurreikusgarritasunez, egin ahal izango die aurre bere oinarritzko konpromisoei eta gauzatu ahal izango du eraginkortasunez bere autonomia instituzionala; eta ziurtatu ahal izango du epe luzeko ikuspegi batetik autonomia osoa eta egiazkoa askatasun akademikoa, berrikuntza eta euskal gizartearen premiekiko unibertsitatearen konpromisoa bermatzeko.**

Bestalde, barne-autonomiaren eta funtzionamendu federalaren printzipioa da EHUren estatutu berrien diseinuaren ardatz gidarietako bat. Ikuspegi horren bidez, fakultateen, ikerketa-zentroen eta gainerako unibertsitate-egituren erabakitzeko eta autogobernurako gaitasuna indartu nahi ditu unibertsitateak, eremu bakoitzaren errealitate akademiko eta zientifikoari hobeto egokitzen zaion kudeaketa deszentralizatu baten alde egiteko. Unibertsitate malgu, partizipatibo eta bateratuagoa lortu nahi da eredu horrekin, zeinean maila instituzional desberdinen autonomiak eraginkortasun, erantzukizun eta konpromiso handiagoa ekarriko baitio euskal unibertsitate-sistema publikoari oro har.

Hala, **zentroek aurkeztutako premia errealak** barne hartzen dira atal honetan. Izan ere, zentroetan, gaur egun, **funtzio metaketaren figura bidez kontratatutako langileek** egiten dituzte **egiturazko zeregin ugari**. **Esparru teknikoari, administraziokoari eta zerbitzuei dagokien berme hori egonkortzea** ezinbestekoa da datorren ekitaldian funtzionamendu egokia bermatzeko. Bestalde, **irakaskuntzako ekipamendu eta azpiegiturak berritzeko** premia dute zentroek. Bereiziki larria da **entxufeen** eta kargatze-puntuen **falta**, ezinbestekoak baitira ikasleen gailu elektronikoak erabiltzeko; **irakaskuntzaren kalitateari zuzenean eragiten ari zaio** gabezia hori. Berdina gertatzen da bideo-konferentzia sistemarekin, pandemian ezarri zen larritasunez, baina berritze eta gaurkotze premia du. Gainera, unibertsitatean kezka dago Basurtuko **Medikuntza eta Erizaintza Fakultatera lekualdatzea modu eraginkorrean planifikatzeko**, ahalik eta lasterren egin ahal izateko, obren igarotzeaz edo balizko atzerapenaz harago. Prozesu honetan elementu kritiko bat da **Fakultatea berehala hornitzeko behar diren altzariak eta irakaskuntza-ekipamendua** izatea, espazioak prest daudenean; horregatik, ezinbestekoa da **altzarien erosketa aurreratzea**.


Unibertsitatearen autonomia modu eraginkorrean gauzatzearen esparruan, EHUK lehentasunezkoztat jotzen du funtsezko ildo estrategiko batean aurrera egitea: ekintza-gaitasuna, kudeaketako autonomia eta lidergo instituzionala indartuko duten **proiektu propioak sustatzea**. Unibertsitateak uste du finantza-gaitasun nahikoa izan behar duela **bere proiektuak eta ikerketa-ildoak bultzatzeko**, unibertsitate-autogobernantza erreala bermatuz. Ekitaldia gerakin positiboarekin ixtea ere autonomiaren zeinu bat da kudeaketan, proiektu estrategikoak sustatzeko, azpiegitura zientifikoak indartzeko eta balio erantsiko unibertsitate-egiturak sendotzeko baliabide propioak izatea ahalbidetzen duena.

Testuinguru horretan, EHUren azterketa estrategikoak lehentasunezko hiru proiektu identifikatzen ditu ildo estrategiko instituzional horren barruan. **Lehenengoa CFAA (Fabrikazio Aurreratu Aeronautikoaren Zentroa) sendotzea eta handitzea da**. EHUK Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta sektore aeronautiko eta teknologikoko enprekin batera sustatutako ikerketa aplikatuko zentroa da, eta zientzia, teknologia eta industria artikulatzen dituen lankidetza publiko-pribatuko esperientzia arrakastatsua da. Erronka proiektu berriak garatzea da, Zamudioko Parke Teknologikoan duten kokapena aprobetxatuz, eta CFAA unibertsitate-egituran erabat integratzea.


Horri gehitu behar zaizkio garapen iraunkorrerako eta unibertsitate-kohesiorako funt-sezkoak diren bi alderdi: mugikortasuna eta etxebizitza. MugiEHU 2026 proiektuak mugikor-tasun jasangarriko plan integral bat bultzatuko du. Oinarri zientifikoarekin eta erakundeen lan-kidetzarekin, unibertsitate-komunitatearen garraio-erronkei helduko zaie—batez ere Leioako campusean — datuen analisiaren, ingurumen-ebaluazioaren eta administrazio eskudunekiko koordinazioaren bidez. Helburua da garraio publikoaren erabilera optimizatzea, ibilgailu pri-batuarekiko mendekotasuna murriztea eta hiru campusetan joan-etorrien irisgarritasuna eta iraunkortasuna hobetzea.

Aldi berean, unibertsitatea **Leioako Campusean Izaera Sozialeko Unibertsitate Egoitza** bat sortzeko lanean ari da. Proiektu horrek ostatu-funtzioa dimentsio sozial, komunitario eta akademikoarekin konbinatzen du. Espazio horrek etxebizitza eskainiko die baliabide gutxiago dituzten ikasleei eta prestatzen ari diren ikertzaileei, campuseko unibertsitate-bizitza dinamizatuz eta gizarte- eta lurralde-kohesioa indartuz. Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Leioako Udalarekin lankidetzan, egoitzak aukera-berdintasuna bermatzea, unibertsitateko bizitza biziberritzea eta campus eredu gizatiarragoa, inklusiboagoa eta iraunkorragoa lortzen laguntzea du helburu. Oro har, **unibertsitate-autonomiaren atal honetan sartutako ekintzek 69.277.385 euroko inbertsioa dakarte**, eta honela banatzen dira: 20.000.000 euro ekitaldia defizitik gabe ixteko aukera ematen duen urteko aparteko ekarpena zuzkidura arruntean sartzeko; 21.600.000 euro irakaskuntza-ekipamendurako (9.602.000 euro ekipamenduak eta ikasgelak berritzeko eta 12 milioi euro Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko altzarietarako), 3.488.779 euro teknikarientzat, administrarientzat eta laguntzako langileentzat — zentroen eta komunikazio-bulegoaren multimedia- eta komunikazio-profilak barne —; eta, azkenik, 14.630.000 euro lehentasunezko ikerketa eta proiektu estrategikoak sustatzeko, honela banakatuta: 12.400.000 euro MugiEHU Mugikortasun Iraunkorraren Plana eskuratu eta handitzeko, 230.000 euro MugiEHU 2026 Plana garatzeko eta 2.000.000 euro proiekturako.

05.




06. →



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco



06.

Ikerketa eta transferentzia

5.
516.
531 €

LABURPENA:

4.400.255 €	IKERKETA TALDEEI LAGUNTZEKO PERTSONAL TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOA
362.233 €	IKERKETAREN ZUZENDARITZA INDARTU
87.829 €	SGIKER ETA IKERKETA BULEGOA
69.825 €	ETIKAKO BULEGOA
50.837 €	ZIENTZIA GIZARTEAN ZABALTZEKO ZUZENDARITZA
50.837 €	GELAK ETA KATEDRAK
43.914 €	INSTITUTUEI ASISTENTZIA
69.825 €	DIGITALIZAZIO TEKNIKARIA
69.825 €	TRANSFERENTZIAN LETRATUA
50.837 €	GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ADMINISTRARI OROKORRA
209.477 €	EZOHIKO DEIALDIEN UNITATEA (3 TEKNIKARI)
50.837 €	ZIENTZIA GIZARTEAN ZABALTZEKO ZUZENDARITZA



Ikerketa eta transferentzia

5.516.531 €

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA: HAZKUNDE ETENGABEA ETA EGITURA INDARTZEKO BEHARRA

6.1. Sarrera

EHUren ikerketa-jarduerak **hazkunde oso esanguratsua** izan du azken urteotan, bai kantitateari bai kalitateari dagokienez, eta honako arlo hauetan islatu da: lortutako **finantzaketa lehiakorren** igoeran, **proiektu** eta **doktoretza-tesien** kopuruan, baita **doktoretza aurreko eta ondoko kontratuen** eta erakunde publiko eta pribatuekin egindako **lankidetzak**-hitzarmenen kopuruan ere. Aurrerapen hori unibertsitateko bikaintasunaren adierazle nagusietako bat da, eta **ikertzaileen ahaleginari esker eutsi zaio**, bai eta, modu erabakigarrian, **Ikerketako Errektoreordetzako zuzendaritzetako TEKAZELen** lanari esker ere; izan ere, haien zereginen eta erantzukizunen bolumena biderkatu egin da, baina plantillak ez dira indartu.

Azken urteotan, unibertsitateak **askoz ere proiektu gehiago** kudeatzen ditu, eta gainera, **gero eta konplexuagoak** dira, bai finantzaketa-iturrien aniztasunagatik (Europakoak, estatukoak eta autonomikoak), bai deialdi bakoitzaren **administrazio- eta justifikazio-eskakizunengatik**. Egoera horren ondorioz, kasu askotan, **ikerketa-taldeek administrazioko eta kudeaketa ekonomikoko lanak** hartu dituzte beren gain, eta horrek ito egiten ditu burokratikoki eta ikerketarako denbora kentzen die. Karga hori ez da **intentsitate horrekin gertatzen Europako beste unibertsitate batzuetan**, non taldeek etengabeko laguntza administratiboa jasotzen baitute **teknikari espezializatu** finkoen eskutik. Pixkanaka laguntza-mota hori eskaintzen joango den **epe ertainerako plan bat egitea ezinbestekoa** da, beraz, nazioarteko produktibitatea eta lehiakortasuna bermatzeko.

Ikerketa-eragile ezberdinei pixkanaka laguntza tekniko espezializatua ematea ahalbidetuko duen epe ertaineko plan bat egitea funtsezko helburua da, hortaz. Edonola ere, estrategia zabala go baten barruan kokatu behar da, eta hor sartzen da, halaber, Ikerketa Intentsiboko Zentro Propioei (CIIP), animalia-zerbitzuari, ikerketako unibertsitate-institutuei eta jarduera zientifikoaren kudeaketan egitura-funtzioak betetzen dituzten unitateei lotutako langile teknikoak eta administrazioak indartzea. Lehen fase horretan, CIIPen oinarritzko funtzionamenduari, animaliategiaren errefortzu teknikoari eta administrazio-langile partekatuen hornidurari eragiten dieten berehalako beharrei erantzutea da helburua, ikerketa-azpiegitura kritikoetan gutxieneko egonkortasun-, eraginkortasun- eta segurtasun-ingurunea bermatzeko beharrezko baldintza gisa.

Hala ere, bigarren fase bat proposatzen da, Ikerketako Zuzendaritza Nagusian (DGI) eta Ikerketako Zerbitzu Orokorretan (SGiker) oinarritua. **Etapan honetan, ikerketa-taldeei etengabeko laguntza emango dieten project manager espezializatuak** pixkanaka sartzea aurreikusten da,

bai eta deialdi lehiakorretan lortutako ekipamendu zientifiko berrietan jarduteko eta zerbitzu zabalagoak eta eraginkorragoak eskaintzeko beharrezkoak diren teknikariak gehitzea ere. Egiturazko indartze horri esker, epe ertainera, laguntza tekniko eta administratiboko sistema bat eraiki ahal izango da, jarduera zientifikoaren egungo eskakizunekin eta nazioarteko lehiakortasun-estandarrekin bat datorrena.

Ikerketako Zuzendaritza Nagusian berregituraketa bat egin behar da antolaketa-egitura indartu ahal izateko. Horretarako, **tarteko bi zuzendaritza gehiago sortzea (26. maila)** eta dauden buruzagitzetako bi berriz barematzea planteatu da. Esku-hartze horrekin (beharren txostenean xehetasunez deskribatu da), eraginkortasuna ematen zaio egiturari, ondoren behar bezala ekiteko aipatutako laguntza eta babes teknikoko plantilla indartzeko prozesu mailakatuari.

Era berean, **Zuzendaritzako kudeaketa-prozesuen digitalizazio integrala** egin behar da, gaur egun oraindik eskuz egiten baitira, eta beraz, ez da oso eraginkorra jasaten duen eskaera handiarentzat.

Nazioarteko I+G Bulegoan (EHUrOPE), zeina ezinbesteko egitura baita EHUK nazioarteko partzuergoetan tamaina handiko ikerketa-proiektuak finantzatzen dituzten Europako eta nazioarteko programen ekimen eta deialdietan parte har dezan sustatzeko, **ezinbestekoa da proiektuak kudeatzeko teknikariaren bi lanpostu berri izatea**, bata justifikazio ekonomikoetan espezializatua eta bestea proposamen eta sustapen-fasean espezializatua.

Etika zerbitzuaren eskaera azkar handitu da ikerketa-jardueren ebaluazio etikoko eta jarraipeneko hiru batzordeetan (tutoretzapeko ikerketa eta hezkuntza berrikuntza barne), hain zuzen pertsonen, haien datuen eta/edo laginen, ikerketako animalien edo agente biologikoen eta/edo GEOen erabilera eskatzen duten ikerketa jardueren kasuan. Gaur egun, erabat gaundituta dauden bi teknikari dituzte, eta hirugarren bat beharko lukete hiru batzordeen lana haien artean banatu ahal izateko: GIEB, giza batzordea, AEEB, animaliak, eta ABIEB, biosegurtasuna.

Ikerketa Zerbitzu Orokorretan (SGIker), karga administratiboak (kudeaketa ekonomikotik, barneko eta kanpoko fakturaziotik eta errendimendu handiko 40 ekipamendu baino gehiagoren erabileratik eta kudeaketatik eratorritako zeharkako beste zeregin batzuen ondorio) **administrari laguntzailearen lanpostu gehigarri bat sartzeko beharra** eragin du. Epe ertainean eta azpiegituren lehia-deialdietan izandako arrakastaren ondorioz, ekipamendu berria instalatzeko beharrezkoa izango da dagokion teknikarien plantilla indartzea.

Bestalde, **lau Ikerketa Intentsiboko Zentro Propioek (IIZP)** behar bezala funtzionatzeko langileen beharrak eta animaliategi-zerbitzua azpiegitura kritiko gisa berrantolatzeke eta indartzeko planteamendua transmititu zaizkio Sailari eta haiek ebaluatzen ari dira.

Testuinguru horretan, **Ikerketa Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzak** egoera bereziki kritikoa du: gaur egungo taldea **teknikari batek eta administrari laguntzaile batek** osatzen dute, eta **aldi baterako kontratazioetara** jo behar izaten du irailetik otsailera bitartean gertatzen diren lanaren goieneko mailai aurre egin ahal izateko. **Ekitaldi, parte-hartzaile eta kudeaketa administratibo**en kopurua etengabe handitzen ari denez, bideraezina da jarduerak zabaltzea beste baliabiderik izan gabe. Gainera, ordainketa guztiak **laguntzailearen** lanpostuari dagozkio (**16. maila**), zeinak bere kategoria gaunditzen duten kontabilitateko eta kudeaketa ekonomikoko funtzioak hartzen baititu bere gain, eta horrek **administrazio-lanpostu gehigarri bat sortzeko edo dagoena birsailkatu eta 18. mailara aldatzeko beharra** justifikatzen du.


Bestalde, **Zientzia eta Gizarte Garapenaren arloko Zuzendaritza** etengabe ari da handitzen **unibertsitatea- enpresa-gizartea** ikasgelen eta **unibertsitate-katedren** sorkuntzari eta jarraipenari dagokienez, eta horiek korrespondentzia, administrazio-izapide eta kudeaketa ekonomiko handia sortzen dute, **inolako administrazio-laguntza propiorik gabe**. Horregatik, funtzio horiei behar bezala erantzutea ahalbidetuko duten langileak sartu behar dira eta **inpaktu-adierazleen bilketa eta eguneratzea** bermatu, bai eta **hitzarmenak, justifikazio-memoriak eta ordainketak** behar bezala kudeatzen direla ere.

Era berean, **transferentzian espezializatutako letradun baten gabezia detektatu da**, zeina ezinbestekoa baita **hitzarmenak, lankidetzak-akordioak eta jabetza intelektualeko eta indus-trialeko dokumentuak berrikusteko** (patenteak, industria-tesiak, konfidentzialtasun-akordioak edo materialaren transferentzia). **Arlo horretan langile espezifikorik ez egoteak hitzarmenen kudeaketa-fluxua baldintzatu eta oztopatu** egiten du, atzerapenak eragiten ditu izapidetzeetan eta zaildu egiten du kanpoko erakundeekiko koordinazioa. Profil hori ez dagoenez, doku-mentu horiek **zerbitzu juridiko orokorretara** bideratu behar izan dira bertan berrikusteko, eta haiek ezin dute berehalakotasun eta espezializazio berarekin beren gain hartu transferentzia-jardueraren ondoriozko hitzarmenen konplexutasun gero eta handiagoa.

Oro har, unibertsitateak egiturazko **desoreka bat du ikerketa-jardueraren hazkundearen eta hura kudeatzeko gaitasun tekniko eta administratiboaren artean**; horrek gainkarga sortzen du, eta mugatu egiten du aurrera egiten jarraitzeko aukera. Beraz, ikerketan, hedapenean eta transferentzian espezializatutako langile tekniko, administratibo eta juridikoak indartzea lehentasuna da 2026ko aurrekontuari begira, ezinbestekoa baita hazkundearen erritmoari eusteko, ikerketa taldeen karga burokratikoa murrizteko, kudeaketaren kalitatea bermatzeko eta EHUK ikerketan, berrikuntzan eta ezagutzaren transferentzian erreferentziazko unibertsitate publiko gisa duen posizioa sendotzeko.


Esparru horretan, **ikerketa- eta transferentzia-arloari lotutako aurrekontu-beharrak 5.516.531 eurokoak dira guztira**, EHUKen jarduera zientifikoaren kudeaketari eusten dioten zuzendaritza, zerbitzu eta unitateak indartzeko. Inbertsio horri esker, egonkortasuna eta eraginkortasuna emango zaie ikerketa, transferentzia eta ezagutzaren hedapena ahalbidetzen duten laguntza tekniko, juridiko eta administratiboko prozesuei, unibertsitateak lortutako bikaintasun-mailarekin bat datorren egitura bermatuz. Zientzia kudeatzeko sistema moderno, arin eta lehiakor bat finkatzeko apustu estrategikoa da, ikertzaileak gainkarga burokratikotik askatuko dituen eta EHUK ikerketaren eta berrikuntzaren nazioarteko eremuan erreferentziazko euskal unibertsitate publiko gisa duen zeregina indartuko duena.

06.



07.





EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

07.

Nazioartekotzea

383.
371 €

LABURPENA:

TEKNIKARI ETA ADMINISTRARIAK

69.825 €	ORI NAZIOARTEKOTZE BULEGOA
101.674,00 €	NAZIOARTEKO PROIEKTUEN BULEGOA
139.651 €	NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNERAKO ZUZENDARITZA
72.221 €	MOBILITY ONLINE PLATAFORMA: TEKNIKARI INFORMATIKOA



Nazioartekotzea

383.371 €

NAZIOARTEKOTZEA: EGITURA SENDOAK UNIBERTSITATE EUOPAR ETA GLOBAL BATERAKO

7.1. Sarrera

Nazioartekotzearen esparruan, **kudeaketa, koordinazio eta laguntza teknikoko egiturak indartzea ezinbesteko premia bihurtu da Europako esparruak berak ezartzen dituen erronkei erantzuteko**, bai eta unibertsitateak aliantza estrategikoetan (hala nola ENLIGHT) hartutako konpromisoei erantzuteko ere. **Kontseilu Europarraren erabakietan ezarritako epeek** behartzen dute aurrerapen horiek **2026an** zehar **premiatz gauzatzera**, bai Erkidegoaren eskakizunak betetzen direla bermatzeko, bai EHUn nazioarteko unibertsitate-esparruko lehiakortasuna ziurtatzeko.

Azken hamarkadetan, EHUK nazioartekotze bizia garatu du, aski agerikoa outgoing eta incoming mugikortasunaren hazkunde iraunkorrean eta lankidetzak akademiko eta zientifikoko sareen sendotzean. Hala ere, nazioartekotze-prozesu horri **ez zaio lagundu kudeaketa-egituren indartzearekin. Erabat gainezka daude eta ez daukate Europako esparruak ezartzen dituen erronka berriei aurre egiteko gaitasunik**. Prozesu horretan, unibertsitate-mugikortasuna funtsezko zutabeetako bat izan da, eta izaten jarraitzen du: EHUK nazioarteko mugikortasun-programen sare zabal batean parte hartzen du —Erasmus+ (irakasle eta ikertzaileen ikasketa, praktika, irakaskuntza eta prestakuntzarako), SICUE, Latinoamerika/beste destino batzuk, eta aldebiko hitzarmen ugari Europa, Amerika, Asia eta Ozeaniako unibertsitateekin—. Horiek guztiek modu erabakigarrian laguntzen dute unibertsitatearen truke akademikoan eta kanpo-proiektzioan, eta, gainera, irakasle eta ikertzaileen (II) eta Teknikarien eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzu-tako Langileen (TEKAZEL) egonaldi eta lankidetzak ere biltzen dituzte.

Nazioarteko lankidetzak sareen artean, nabarmentzekoa da **Europako ENLIGHT aliantza**, zeinak Ganteko, Bordeleko, Groningeneko, Göttingeneko, Uppsalako, Tartuko, Comenius-Bratislavako eta Galwayko unibertsitateak eta EHU biltzen baititu, 2023tik Bernako Unibertsitatearekin bate-ra. Aliantza hori ardatz estrategikoa da Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua eraikitzeko, mugikortasunean, berrikuntza pedagogikoan eta ikasketen elkarrekiko aitortzan oinarritutako integrazio akademiko sakona sustatzen baitu. **Testuinguru horretan, batera antolatutako tituluak (joint degrees) eta Europako unibertsitate arteko programak garatzeari lotutako erronka berriak ditu unibertsitateak. Europar Batasuneko Kontseiluak, 2025eko maiatzaren 12an, ba-tera antolatutako tituluen Europako zigiluari buruzko ebazpen bat eta gomendio bat onartu zituen (European Joint Degree Label): lehenak estatu kideen ikuspegi bateratua eta hiru faseko bide-orri bat finkatzen ditu — 2025-2026an prestatzea, 2026tik 2028ra bitartean hedatzea eta**


ebaluatzea, eta 2029an Europako titulu bateratu bat sortzeari buruzko erabakia hartzea—; bi-garrenak, berriz, zigilua emateko irizpideak definitzen ditu, unibertsitateen arteko lankidetzan, kalitate partekatuaren bermean, kualifikazioen aitorten automatikoan eta ikasleen mugikorta-sun integratuan oinarrituta.

Eraldaketa horrek **araudiaren egokitzapen eta antolaketa sakon bat egitea dakar unibert-sitate parte-hartzaileentzat, bai eta hura garatzeko ardura duten kudeaketa akademikoko eta teknikoko egiturak indartzea ere**. Ondorioz, Europako esparru berri horretatik eratorritako 2026ko aurrekontu-beharrak **unibertsitatearen nazioartekotze-egitura indartzean zentratzen dira, Nazioarteko Harremanen Bulegoa (NHB) indartuz titulazio bateratuak diseina-tu, ezarri eta egiaztatzeko nazioarteko kudeaketa akademikoan espezializatutako langileekin; Nazioarteko Proiektuen Bulegoa zabalduz, Europako programen bolumen gero eta handia-goari eta justifikazio tekniko eta finantzarioko eskakizunei erantzuteko; eta Nazioarteko Mu-gikortasuneko Zuzendaritzari baliabide nahikoak emanaz mugikortasunen kopuruaren eta konplexutasunaren areagotzea kudeatzeko**. Horri batzen zaio gaitasun digitalak bultzatzeko beharra **Mobility Online plataformaren** bidez, zeinak deialdiak eta prozedurak modu eraginkor eta bateratuagoan kudeatzea ahalbidetuko baitu, baita GAUR eta UXXI sistemekin integratzea ere, trazabilitatearen, adierazleen eta dokumentuen kudeaketaren arloan Europako baldintzak betetzen direla bermatuz. **Neurri horien helburua ez da soilik ENLIGHTen parte hartzeak edo batera antolatutako titulazioaren Europako zigiluarekin bat egiteak dakartzan administrazio- eta araudi-eskakizunei erantzutea, baita EHUK unibertsitatearen nazioartekotzean lidergo- eta bikaintasun-posizioari eutsiko diola ziurtatzea ere**, Europako politikekin lerrokatuz eta ezagutzaren Europako esparruan erabat integratutako euskal unibertsitate publiko gisa duen rola sendotuz.

07.

08.





EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

08.

**Oinarrizko funtzionamendurako
beharrak**

5.
152.
226 €

LABURPENA:

324.961 €	IDAZKARITZA NAGUSIKO BEHARRAK
469.791 €	GRADU IKASKETAK
293.740 €	GRADUONDOKO IKASKETAK
699.475€	KONTRATAZIO, ONDARE ETA KONTABILITATE ZERBITZUA
215.414 €	PERTSONALEKO ZERBITZUAREN PREMIAK
2.250.588 €	IKT GERENTEORDETZAK BEHAR DUEN ERREFORTZUA
200.000€	EHU.EUS WEBGUNEA BERRITZEKO HURRENGO FASEA
488.780 €	KOMUNIKAZIO BULEGOAN PROFIL BERRIAK TXERTATZEA
209.477€	IRI ZERBITZUA INDARTZEKO 3 TEKNIKARI



Oinarrizko funtzionamendurako beharrak

5.152.226 €

IRAKASKUNTZAKO ETA KUDEAKETAKO BESTE BEHAR BATZUK: UNIBERTSITATE-KUDEAKETA MODERNO, DIGITAL ETA ERAGINKOR BATERANTZ

8.1. Sarrera

Epigrafe honetan sartutako jarduketek Euskal Herriko Unibertsitatearen eguneroko funtzionamenduan eta kudeaketa-gaitasunean eragin zuzena duten beste **premia estruktural eta estrategiko** batzuei erantzuten diete. Jarduera akademikoen eta ikerketa-jardueren ohiko mantentzeaz harago, unibertsitateak **administrazioaren, teknologiaren eta antolamendua-ren modernizazio-prozesu** bati ekin behar dio 2026an, jasangarritasuna, lehiakortasuna eta koherentzia instituzionala bermatu ahal izateko.

Azken urteotan, EHUK hazkunde nabarmena izan du bere jardueraren konplexutasunean, honako arrazoi hauen ondorioz: batetik, araudia zabaldu egin da (legezko eskakizun berriak bizikidetzan, praktiketan, kotizazioetan edo etengabeko prestakuntzan), eta, bestetik, tresna digitalak garatu, hitzarmenak biderkatu eta kalitatea ebaluatze eta ziurtatzeko prozesuak areagotu egin dira. Hala ere, **egitura administratibo eta tekniko ez da erritmo berean hazi**, eta horrek gainkargak, bikoiztasunak eta geldotasuna sortzen ditu funtsezko prozeduretan.

Atal honetan sartzen diren arloak —Idazkaritza Nagusia, Graduak eta Graduondoko Ikasketak, Gerentzia, Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordetza eta Komunikazioa— **zerbitzu tronkalak dira erakundearen funtzionamendurako**, baina gaur egun **azpi finantzaketa-baldintzetan, langile gutxiarekin eta tresna teknologiko zaharkituekin lan egiten dute**. Premiazkoa da, beraz, haren egiturak indartzea, Unibertsitateko komunitatearen kudeaketaren eraginkortasuna, informazioaren trazabilitatea eta arreta egokia ziurtatzeko.

Idazkaritza Nagusiak zuzkidura egonkorra behar du **Artxibo Nagusia** sendotzeko eta hitzarmenen tramitazioa modu egokian kudeatzeko, bai eta **Bizikidetzak Batzordea** indartzeko ere, araudia betetzen dela eta Unibertsitateko komunitate osoaren eskubideak babesten direla bermatuz.

Graduko ikasketen esparruan, unibertsitateak arazo bikoitz bati egin behar dio aurre: alde batetik, **langileen egiturazko gainkarga** bat dauka, eta horrek galarazi egiten dio kudeaketa akademikoko zeregin kritikoei arintasunez erantzutea, eta, bestetik, **muga teknologikoak** ditu GAUR edo SARBIDEA bezalako sistemen zahartzearen ondorioz, horien gaitasuna jada ez baita egokitzen egungo eskariaren bolumenera eta konplexutasunera. Azken ikasturtean,

21.000 aurreinskripzio baino gehiago, 8.000 matrikula berri, 56.000 dei eta 450 intzidentzia tekniko baino gehiago erregistratu dira, eta zerbitzuak bere gaitasunen mugan jardun du, aldi baterako errefortzuen mende, zeinek ez baitute bermatzen jarraipena eta ezagutzaren transferentzia.

2026ari begira, funtsezkoa da **plantilla egonkortzea eta dimentsionatzea, eta onarpenean, beketan eta matrikularen kudeaketan espezializatuta dauden profil juridiko eta teknikoak txertatzea, zerbitzuaren kalitateari eustea ahalbidetuko duten errelebo-mekanismoak eta barne-prestakuntza ziurtatuz**. Aldi berean, SARBIDEA eta GAUR aplikazioak modernizatu eta integratu behar dira, arreta-kanalak bateratuko dituen eta intzidentzien kanal anitzeko kudeaketa ahalbidetuko duen leihatila elektroniko bakar baterantz aurrera eginez. Horrek berekin dakar, halaber, datu akademiko eta estatistikoen kudeaketa indartu behar izatea, adierazle instituzionalen kalitatea, trazabilitatea eta koherentzia bermatuko dituen profil tekniko batekin, etorkizuneko Datuen Unitatearekin lotuta (digitalizazio-beharren atalean azaldu da). Horrela bakarrik ziurtatu ahal izango da arreta eraginkorra eta zerbitzuen eta zentroen arteko benetako koordinazioa.

Graduondoko ikasketei dagokienez, lehentasun estrategikoa **ikasketa ofizialen eta etengabeko prestakuntzaren kudeaketa antolatzea eta profesionalizatzea** da, azken urteotan modu esponentzialean hazi diren bi eremu baitira. Berezik, unibertsitateak **mikrokreden-tzialak kudeatzeko aplikazio espezifiko bat eduki behar du**, ziklo osoa bete ahal izateko (onartzea, matrikulatzea, ebaluatzea eta ziurtatzea), kanpoko enkarguen mende egon gabe. Tresna hori gabe, ezingo zaio **Mikrokredentzialen Planaren** garapenari eutsi 2026az harago.

Era berean, ezinbestekoa da **Berezko Ikasketetako Unitatean talde tekniko egonkor bat** finkatzea, tramitazioa, arauen kudeaketa eta datuen ustiapena bere gain hartuko dituen, egungo programa-kontratuak amaitzean sortuko den hutsune operatiboa saihesteko. Aldi berean, **graduondoko hitzarmen akademikoen**, titulazio bikoitzen eta **Erasmus Mundus** pro-gramen konplexutasun gero eta handiagoak eskatzen du euskarri juridikoa eta teknikoa in-dartzea, **USLOrekiko** eta **822/2021 Errege Dekretuarekiko** koherentzia bermatuz.

Horretarako, lehentasunezkoa da **GAUREn eta SOLRUCTen arteko elkarrragingarritasunean** aurrera egitea, **Egoitza Elektronikoaren** bidez fluxu digitalak bultzatuz, bikoiztasunak saihesteko, trazabilitatea hobetzeko eta araudia betetzen dela bermatzeko. Epe ertainera, Graduaren eta Graduondokoaren artean koordinatutako **Nazioarteko Titulazioen Bulego** bat sortzeak batera antolatutako tituluen eta titulu bikoitzen diseinua, negoziazioa eta ja-rraipena zentralizatzea ahalbidetuko luke, kalitate akademikoa eta eraginkortasun adminis-tratiboa bermatuz.


Laburbilduz, identifikatutako beharrak norabide berean doaz, bai graduatan, bai graduon-dokoetan: jarduera akademikoaren oinarri diren **pertsonak, sistemak eta gobernantza** indartzea. **Plantilla egonkor eta espezializatuak** izatea, **plataforma teknologikoak modernizatzea** eta **kudeaketa koordinatua eta elkarrragingarria** finkatzea ezinbesteko baldintzak dira Europako unibertsitate-sistemako aurreratuenen artean egon nahi duen unibertsitate publiko batean sarbide ekitatiboa, erakundearen gardentasuna eta irakaskuntza- eta trebakuntza-prozesuen kalitatea bermatzeko.


Arlo ekonomikoan, **Gerentziako Kontratazio eta Kontabilitate Zerbitzua** ere indartu egin behar da Estatuko eta Europako araudiek eskatzen dituzten arau, finantza-kontrol eta justifikazio ekonomikoko eskakizun gero eta handiagoei erantzuteko, baliabide publikoen kudeaketa arina eta gardena bermatuz.

Bestalde, **Komunikazio arloaren** erronkak bi dira: batetik, **webgune instituzionala** eguneratzea, hori baita unibertsitatearen erakusleiko publiko nagusia, eta, bestetik, zerbitzuen eta ikastegien arteko **barne-komunikazioko** eredu koordinatu bat egituratzea; horretarako, ezinbestekoa da **ikastegietan multimedia profilak txertatzea**. **Inguruko beste unibertsitate publiko batzuekin alderatuta, EHUko Komunikazio Bulegoaren** egitura oso txikia da, eta horrek mugatu egiten du komunikazio instituzionalaren, krisi-kudeaketaren, ikus-entzunezko ekoizpenaren eta presentzia digitalaren eskaera gero eta handiagoari modu estrategiko eta profesionalean erantzuteko gaitasuna. Gainera, 2025 betean, pentsaezina da erreferentziazko unibertsitate publiko batek profil e spezializaturik ez izatea, hala nola web garapeneko, diseinuko, komunikazio digitaleko eta sareen kudeaketako teknikariak, ezinbestekoak baitira komunikazio eraginkorra, eguneratua eta gardentasunaren, interakzioaren eta nazioarteko proiektzioaren estandar garaikideekin lerrokatua bermatzeko. Eremu hori indartuz gero, **komunikazio korporatiboa modernizatzeaz** gain, unibertsitatearen **proiektzio publikoa indartuko** litzateke, erreferentzia zientifiko, kultural eta sozialeko erakunde gisa.

Oro har, premia horiek ez dira egoeraren araberakoak, egiturazkoak eta estrategikoak baizik. Unibertsitateko administrazio modernoa, eraginkorra, gardena eta digitalki integratua bermatzeko betebeharrari erantzuten diote, irakaskuntzari, ikerketari eta transferentziari euskarria emateko gai izango dena, XXI. mendeko unibertsitate publiko batek eskatzen dituen kalitate-estandarrekin. Horiek guztiak 2026ko aurrekontuetan aintzat hartzeak, **2.849.492 euroko aurrekontu globalarekin**, aukera emango du ez bakarrik egungo disfuntzioak konpontzeko, baizik eta EHU profesionalizazioan, digitalizazioan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako autonomia eta bikaintasun instituzionaleko etapa berri baterako prestatzeko.

08.





EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

2026



